

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
26/2008	Zenbakirik gabekoa	2008/11/10	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Atzera egitea

Gasteizen, 2008ko azaroaren 10ean,

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidentek eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatu (IZENA) jaunak Departamentuaren izenean eta ordezkartzan aurkeztutako idatziarekin lotuta, non adierazi baitu ATZERA EGITEN DUELA 2008ko maiatzaren 13an Estatuko Zerga Administrazioaren aurka aurkeztutako gatazkan, "SOZIETATE 1, S.L." (IFZ:) zergapekoak 2002 eta 2003ko BEZaren aitorten-likidazioetan Gipuzkoan egindako eragiketengatik oker adierazitako bolumen osoa ordainarazteko eskumenari dagokionez. Arbitraje Batzordeak 26/2008 espediente zenbakiaz tramitatzen du gatazka hori.

I. AURREKARIAK

1. 2008ko maiatzaren 13an, sarrera eman zitzaion Arbitraje Batzorde honen Erregistroan, Gipuzkoako Zerga Administrazioak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka gatazka planteatzeko aurkeztutako idatziari. "SOZIETATE 1, S.L." (IFZ:) zergapekoak 2002 eta 2003ko BEZaren aitorten-likidazioetan Gipuzkoan egindako eragiketengatik oker adierazitako bolumen osoa ordainarazteko eskumenari dagokionez planteatu zuen gatazka hori.

2. 2008ko irailaren 25ean, Arbitraje Batzorde honen Erregistroan beste idatzi bat jaso zen, eta hartan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, Departamentu horren izenean eta ordezkartzan, ATZERA EGITEN DU aurreko paragrafoan aipatutako gatazkan.

Idatzian adierazten denez, gatazkan atzera egitea etorri da egiaztatu delako "Zerga Administrazioko Estatu Agentzia zergapeko horri buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiten ari dela, gatazkak ukitutako zergaren eta ekitaldien inguruan, eta gatazka aurkezteak haiek etetea ekarri duela. Gatazkaren aurkezpenak ezin ditu oztopatu jarduketak".

3. Aurrekoa aintzat hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak eskatu du amaitutzat eman dadila prozedura, jarduketa guztiak bukatzea eta artxibatzea agindu dadila, eta atzera bueltatu dadila bidalitako dokumentazioa.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
26/2008	Zenbakirik gabekoa	2008/11/10	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketen bolumena. Atzera egitea

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duenak, 8. artikuluan xedatzen duenez, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen-hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio."

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 91. artikuluan 2. apartatuta jasotakoaren arabera, "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek."

Honenbestez, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1. Gipuzkoako Foru Aldundiari onartzea atzera egiten duela 2008ko maiatzaren 13an Estatuko Zerga Administrazioaren aurka aurkeztutako gatazkan, zeina planteatu baitzuen "SOZietate 1, S.L." (IFZ:) zergapekoak 2002 eta 2003ko BEZaren aitoren-likidazioetan Gipuzkoan egindako eragiketengatik oker adierazitako bolumen osoa ordainarazteko eskumenari dagokionez.

2. Agintzea jarduketak amaitu eta artxibatu daitezela, eta bidalitako dokumentazio guztia atzera itzul dadila.

3. Erabaki hau jakinaraztea bai entitate eskatzaileari eta bai Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.